

**PLE 04-MAY-23 (4/CP) DIRULAGUNTZEN BIDEZ FINANTZATUTAKO KREDITUA SORTZEA IRUÑEKO UDALAREN 2023KO AURREKONTU LUZATUAN, BELOSOKO ALDAPAN BARN A IRUÑA ETA BURLATA LOTUKO DITUEN OINEZKOENDAKO ETA TXIRRINDULARIENDAKO BIDERAKO, ETA ECOZINE PROIEKTURAKO.**

PLE 04-MAY-23 (4/CP)

« IKUSIRIK Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuaren aldaketari buruzko espedientean jasota dauden agiriak (Alkatetzak 2022-12-30eko ebazpenaren bidez onetsi zuen aldaketa hori, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, dirulaguntzekin finantzatutako proiektuen gastuetarako beharrezkoa baita) eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditua sortzea 40/13400/619000 partidan (Mugikortasuna. Berrezarpen-inbertsioak erabilera publikoko azpiegitura eta ondasunetan), 500.000,00 euroko zenbatekoarekin, Belosoko aldapan barna Iruña eta Burlata lotuko dituen oinezkoendako eta txirrindulariendako biderako, diru-sarreraren 20/79700 partida (Europar Batasunaren dirulaguntzak) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

2.- Kreditua sortzea 40/17212/227060 partidan (Agenda 21, Kontratuak, ikerketa eta lan teknikoak), 7.000,00 euroko zenbatekoarekin, Ecozine proiekturako, diru-sarreraren 20/45082 partida (Nafarroako Gobernua, beste dirulaguntza batzuk) zenbateko berean gehituz finantzatuta.

3.- Aldaketa hauei aplikatzen ahalko zaie aurrekontua betetzeko indarreko oinarrietako 10.aren 8. apartatua, aurrekontu-aplikazio berriak sortuz gero gastuaren behin betiko egozpenean